



3.2.1.5.- Istripua izan duen txirrindulari kopuruaren bilakaera

	2013	2014	2015
Biktimak izan dituzten istripuen kopurua (txirrindulariak tartean izanik)	92	125	137
Biktimak izan dituzten istripuetan nahasitako txirrindularien edo bizikletan atzean zihoazenen kopurua	86	120	130

Egondako istripu motak, inplikatuena arabera

Txirrindularia soilik	41	56	66
Txirrindularia eta oinezkoa	9	12	9
Txirrindularia eta txirrindularia	4	10	13
Txirrindularia eta ziklomotor edo motorra	8	8	9
Txirrindularia eta autoa	22	34	30
Txirrindularia eta autobusa	1	1	1
Txirrindularia eta kamioia	0	1	2
Txirrindularia eta furgoneta	4	2	1
Patinatzailea eta autoa**			5
Beste batzuk	3*	1	1

* Txirrindularia, motorra eta autoa batera

**Datu berria gehitu da, patinatzaileena. Izan ere, hauen mugimendu gehienak antzeko gunetan egiten dituzte.

Biktima, lekualdatzeko moduaren arabera

	2013			2014			2015		
Oinezkoak	0	1	7	0	2	6	0	0	8
Bizikleta gidatzen	0	5	78	0	5	114	0	4	125
Bizikletan atzean jarrita	0	0	3	0	0	1	0	1	1
Motorrean zihoazanak	0	0	9	0	0	3	0	0	5
Bidaiariak autobusean	0	0	2	0	0	0	0	0	0
Patinetan edo antzekoetan zebiltzanak	0	0	0	0	0	0	0	1	5
GUZTIRA	0	6	99	0	7	124	0	6	144



Iturria: Udaltzaingoa (Bide Segurtasuna)

2014. urtearekin alderatuta, areagotu ziren bai bizikletak nahasita egon diren istripuak bai istripua izan duten txirrindularien kopurua. Bizikletak nahasita izandako 150 zaurituen artetik, aztertutako parteen arabera, 144 bizikletaz zihoazen eta gainerakoak patinen antzeko elementuetan. Larri zauritutako 6 pertsonetatik, 4 bizikleta gidatzen zihoazen, bat atzean zihoan, eta beste bat patinatzen. Gainera, oinez zihoazen 8 pertsona arin zauritu dira. Txirrindulariekin batera istripua izan zuten beste 5 pertsona motoan zihoazen. 2015ean zauritutako pertsonak, guztira, 150 izan ziren. Horietatik 6 larri. Zauritutako txirrindularien kopurua %8,33 handitu da. Bizikletaz dabiltzan pertsonen kopuruak ere gora egin du, %9.

Aurreko urteetan bezala, 2015ean ez da txirrindularirik hil (azken hildakoa istripu batean 2007an izan zen).

Txirrindularien istripu gehienak pertsona edo ibilgailu baten kontra talka egin gabe izan ziren, eta 66 pertsona zauritu ziren. Istripuen kopuru nabarmen bat (30) turismoen aurka talka egitean izan dira. Oinezkoekin izandako talken ondorioz, 8 oinezko zauritu ziren, joan den urteko kopuru bera, baina zauritu larririk gabe (aurreko urtean bi izan ziren); 13 istripu bizikleten arteko talken eraginez izan ziren. Amaitzeko, 9 istripu izan ziren motozikleten kontra talka eginez, eta motoan zihoazen 5 pertsona zauritu ziren; horrez gain, 6 istriputan patinatzaileak edo antzekoak ziren tartean, eta zauritu larri bat egon zen.